

8/2018 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK AZAROAREN
27an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

MAHAIBURUA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*.

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

MAHAIKIDEAK:

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea*.

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*.

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

Koldo Leoz Garciandia jn., *Lizarrako alkatea*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.

Ezin etorria adierazi dute:

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua*.

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea*.

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*.

Yolanda González García and., *Vianako alkatea*.

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita zazpian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. arituda, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1º.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2º.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3º.- NUKFren 2018ko Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.
- 4º.- NUKFren 2018ko Kudeaketa Txostena
- 5º.- NUKFren 2019ko Jarduketaren Programa.
- 6º.- NUKFren 2019ko Aurrekontua.
- 7º.- Lankidetzarako esparru hitzarmena, zergari buruzko informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko zergaren kudeaketan eta ikuskeran Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako toki entitateen artean.
- 8º.- Presidentearen informazioa.
- 9º.- Galde-eskeak

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

ERABAKI DA:

2018ko urriaren 9an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Adinekoen Kontseilua (2018/10/25).** Zahar egoitzen gaineko esparru akordio baten berri eman zen, baita laguntza ildo batzuen igoeraren berri ere (etxeko zaintzaile profesionalentzat, etab.).
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/10/29).** Honako hauei txostena egin zitzaion: Aurrekontuei buruzko Foru Legea, desfibriladoreen gaineko foru dekretuaren proiektua, eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzeko Legearen proiektua.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua (2018/11/12).** Informazioa eskuratzeko eskaerak ezesteagatik aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ziren eta aditzera eman zen Kontseiluko buruak Kontseiluaren memoria aurkeztu duela. Halaber, jakinarazi zen toki entitateei galdetegi bat igorri zaiela gardentasunari buruzko araudiaren inguruan.
- **Nafarroako Kirolaren Kontseilua (2018/11/15).**
 - Aldeko txostena egin zitzaion Nafarroan kirol lanbidean hasi eta aritzea arautuko duen foru legearen aurreproiektuari.
 - Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren kirol instalazioen obrak aztertu ziren, zeinak Inbertsio Finantziarioki Jasangarrien Planean sartuta baitaude.
 - Miguel Indurain fundazioaren programen berri eman zen.
 - Aztertu zen zer aurreikusten den kirolaren arloan Nafarroako 2019ko Aurrekontuen Orokorretan.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2018/11/19).** Honi egin zitzaion txostena: Montepioen Araubide Iragankorrari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Legearen aurreproiektuari eta abeltzaintzako ustiatzeko osasunean eta higieanean bete beharreko baldintzei buruzko foru dekretu bati.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. NUKFren 2018ko Batzar Nagusi Arruntaren deialdia eta gai-zerrenda.

Proposatzen da NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren bilkura 2018ko abenduaren 14an egitea, Iruña Park hotolean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarreanean. Hona hemen gai-zerrenda:

- 1.- 2016/12/15eko eta 2017/6/22ko batzarretako aktak onestea.
- 2.- NUKFren 2018ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 3.- NUKFren 2019ko Jarduketan Programa onestea.
- 4.- NUKFren 2019ko Aurrekontua onestea.
- 5.- Galde-eskeak.

Presidenteak jakinarazi du orain arte bezala igorriko dela batzarraren deialdia, posta arruntaren bidez alegia; hala ere, gai-zerrendari buruzko dokumentazioa posta elektronikoz baino ez da igorriko, salbu eta halakorik ez duten kontzejuei.

ERABAKI DA:

NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren bilkura 2018ko abenduaren 14an egitea, Iruña Park hotolean, 16:30ean lehendabiziko deialdian, eta 17:00etan, berriz, bigarreanean, proposatu den gai-zerrenda berarekin.

4. PUNTUA. NUKFren 2018ko Kudeaketa Txostena

Presidenteak kudeaketa txostenaren punturik aipagarrienak azaldu ditu. Batzorde Betearazlearen deialdiarekin batera igorri da kudeaketa txostena, NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onespenera jarri gogo baita.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Garbayo andreak adierazi du ezen, jasota geldi dadila, informazio handiagoa eman beharko zuela NUKFk, beste gai batzuetan bezala, azaltzeko zer egin duen Toki Inbertsioen Planari nahiz Inbertsio Finantzarioki Jasangarrien Planari dagokienez eta zergatik atzeratu den bata zein bestea.

Presidenteak erantzun du ezen, Toki Inbertsioen Planaz, zuzendari nagusiak horren berri eman zuela ekaineko batzorde betearazlea egin baino lehen. Obra finantzarioki jasangarriez bezainbatean, azaldu du bilera bat egin zela Toki Administrazioiko zuzendari nagusiarekin eta teknikariekin, zirkular bat adosteko inbertsio jasangarriekin hartu beharreko prozedurei eta tramitazioari buruz. NUKFk, halaber,

beste zirkular bat igorri zuen jakinarazteko zer aurreikusten zuen Transferentzia Arrunten Funttsaren banaketaz.

Goñi andreak esan du, bere ustez, behar adinako informazio orokorra eman dela, baina kontua dela nor bere eskaeraz baino ez duela jakin nahi.

ERABAKI DA:

NUKFren 2018ko Jarduketaren Programaren proposamena onestea, zeina aktara erantsi baita, eta NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onespenera jartzea.

5.- NUKFren 2019ko Jarduketaren Programa.

Presidenteak azaldu ditu jarduketa programaren punturik aipagarrienak.

Nabarmendu du zer eginen duen NUKFk udalbatzak berritzeko prozesuan, eta, geroago, entitatearen beraren organoak berritzekoan.

Besteak beste, toki entitateei aholkularitza ematea hauteskunde prozesuak irauten duen bitartean eta udalbatza berriak eratzen diren bitartean, prestakuntza ematea udalkide berriei eta NUKFko organoak berritzeko hauteskundeak egitea.

Beste gai batzuk ere aipatu dira, landu beharko direnak, hala nola toki administrazioa berrantolatzeke legea, toki finantzazioa eta administrazio elektronikoa.

ERABAKI DA:

NUKFren 2019ko Jarduketaren Programaren proposamena onestea, zeina aktara erantsi baita, eta NUKFren Batzar Nagusi Arruntaren onespenera jartzea.

6. PUNTUA.- NUKFren 2019ko Aurrekontua.

Presidenteak NUKFren 2019ko Aurrekontuaren proiektua aurkeztu du; ondoren, idazkari nagusiak azaldu du zer partida aldatu diren gehien aurreko ekitaldiko aurrekontuaren aldean.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Leoz jaunak galdetu du behar adinako dirurik egonen den NUKFko plan estrategikoa onetsita erabakitzen bada berdintasun teknikari bat kontratatzea.

Garbayo andreak, gai horren harira, adierazi du ezen, bere ustez, Nafarroako Gobernuak egin beharko lukeela kontratazio hori, toki entitate guzti-guztiei emateko zerbitzua, kontuan izan gabe NUKFri atxikita dauden ala ez.

Presidenteak adierazi du bi kontu baloratu behar direla: batetik, NUKFk zerbitzu hori eman behar duen ala ez; eta bestetik, eskaera zehatz bat badagoela, 18 udalek egindakoa, sare bat eratzeko.

Eskaera horren aurrean, zenbait konponbide eskaini zitzaizkien, sarea NUKFren barnean egoteaz bestelakoak.

Leoz jaunak esan du baloratu beharra dagoela NUKFk zer egin behar duen.

Batzarren onespenera jarrita, Garbayo andrearen abstentzioarekin itzultzailearen kontratazioak dakarren gastuarengatik.

ERABAKI DA:

NUKFren 2019ko Aurrekontuaren proiektua onestea, zein aktara eransten baia, eta Federazioaren Batzar Nagusiaren onespenera jartzea.

7. PUNTUA.- Lankidetzarako esparru hitzarmena, zergari buruzko informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko zergaren kudeaketan eta ikuskapenean Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako toki entitateen artean.

Jakinarazi da lanean ari garela Nafarroako Zerga Ogasunarekin helburu bikoitza duen lankidetzaren hitzarmen bat adosteko. Helburu horietako bat da lankidetzaren sendotzea Zerga Ogasunaren eta toki entitateen artean, bakoitzak duen informazioa errazago trukatzeko eta iruzurra eta ezkutuko ekonomia murrizteko.

Hitzarmenaren beste helburua borondatezkoa da toki entitateentzat: Zerga Ogasunak, zuzenean edo instrumentu entitateen bitartez, zenbait zerbitzu eta jarduketa egitea zergak egiaztatu eta ikuskatzeko.

Kasu horretan, zati horri atxikitzen zaizkion toki entitateek zerbitzu horiek jaso ditzakete, eta Ogasunak jasanaraziko die bere gain hartzen dituen kostuak.

Zerbitzu horien artean, honako hauek sartzen dira: katastroko lanetarako babesa, eta egiaztapenak eta ikuskapenak egitea informazio trukaketa eskatzen duten udal zerga eta tributuetan.

Oraindik ez dugu behin betiko testua, eta jarraitzen dugu hitzarmenean lan egiten. Behin lortuta, igorri eta kasuan kasuko Batzorde Betearazlearen gai-zerrendan sartuko da.

Marañón andreak esan du bere ustez ez dela nahikoa Ogasunak jarduera ekonomikoen gaineko zergaz eman beharreko informazioa. Uste du gai hori oso garrantzitsua dela, datu batzuk beharrezkoak direlako behar bezala likidatzeko eta udalek ez dutelako ezagutzeko modurik.

ERABAKI DA:

Horretaz jabetzea.

8. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Urriaren 10ean bilkura bat egin zela hauteskunde elkarteekin egindakoaren berri emateko.
- Urriaren 24an eta 25ean bilkurak egin zirela Madrilén Nafarroako alderdiek Kongresuan eta Senatuan dituzten ordezkariekin, hauteskundeei buruzko araudian aldaketa bat sustatzeko.
- Berdintasunari buruzko jardunaldiak eginen direla Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin sinatutako hitzarmenaren barnean.
- Urriaren 30ean bilkura bat egin zela Landa Garapeneko Departamentuko ordezkariekin eta zenbait alkaterekin Animaliak Babesteko Foru Legearen zirriborroa dela-eta, zeina Parlamentuan tramitatuko baita, eta beste bilkura bat egin dela gaur bertan zakur abandonatuak biltzeko zerbitzua dela eta.
- Bilkura bat egin dela STEILAS sindikatuarekin.
- Bilkura bat egin dela Toki Administrazioa Berrantolatze Foru Legearen tramitazioarekin gaikuntza lortu duten idazkari batzuekin, haien egoera dela eta.

- Bilkura bat egin dela 0-3 urteko taldearekin, Hezkuntza Departamentuak aurkeztutako proposamenak jasotzeko.
- Jardunaldiak egin direla hilaren 15ean eta 16an administrazio elektronikoari buruz.
- Xedapen arauemaile batzuk tramitatzen ari direla: Berdintasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektua eta Kirol Lanbidea Hasi eta Aritzeko Foru Legea.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA.- Galde-eskeak

Leoz jaunak adierazi du kezkatuta dagoela joko eta apustu areto asko irekitzen ari direlako herri askotan. Gobernu horretan ari bada ere, irizten du kezka hori helarazi beharko litzaiokeela, bere eskumenekoak diren neurriak har ditzan.

Garbayo andreak bat egin du kezka horrekin eta esan du zerbait egin litekeela gazte elkarteekin arazo horren inguruan.

Presidenteak hura jaso eta esan du arazoaren berri emanen zaiola joko eta apustu arloan eskudun den departamentuari.

Albizu jaunak gogora ekarri du 16 urtetik 18 urtera bitarteko gazteen eskola garraioaren arazoa. Presidenteak adierazi du NUKF lanean ari dela gai horretan, iristen ari diren eskaerak biltzen ari baita.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko sei eta erdiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.